2012

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza

Viceconsejería de Comercio y Turismo

nº 28

# Euskal Turismoaren Txostena
# Informe del Turismo Vasco



## TURISMO-MUGIMENDUAK EUSKADIN FAMILITUR 2011

## LOS MOVIMIENTOS TURÍSTICOS EN EL PAÍS VASCO FAMILITUR 2011

MERKATUAREN AZTERKETA | ANÁLISIS DEL MERCADO

Espainolen Turismo Mugimenduen estatistikak (Familitur) Estatuan egindako joan etorriak aztertzen ditu; horien artean, Euskaditik edo Euskadira egindakoak ere aztertzen dira

*La estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) se centra en los viajes realizados por los residentes en el Estado y permite un análisis por CC.AA.*

## Familiturek erreferentzia bezala erabili dituen Autonomia-Erkidegoak

## *Las CC.AA. ámbito de referencia de Familitur*

1999. urtetik Azterlan Turistikoen Institutuak bere gain hartu du Espainolen Turismo Mugimenduen estatistika (Familitur) lantzeko ardura. Aipatu estatistika Estatuko biztanleen turismo portaera ezagutzeko oinarrizko iturri estatistikoa da, eta Estatuko autonomia erkidegoei buruzko informazioa eskaintzen da bertan.

Estatistikaren xedea espainolek egindako bidaiak dira, Estatuaren barruan egindakoak eta atzerrira egindakoak, beti ere, edozein arrazoi delarik medio eta aukeratutako ostatu mota edozein delarik, bizi diren lekutik kanpo gutxienez gau bat igarotzen badute. Zentzu horretan, hotelak, landa etxeak eta kanpinak kontuan hartzeaz gain –Eustat eta INE erakundeek egiten duten bezala–, familia/lagunen etxeak, jabetzako bigarren etxebizitzak, alokatutako etxebizitzak, eta abar ere barne hartu dira.

Bidaiarien fluxuei buruzko datu kuantitatiboak eskaintzeaz gain autonomia erkidego batetik bestera egiten diren bidaiak eta atzerrira egiten direnak-, Familitur-ek bidaien ezaugarriei buruzko datuak ere eskaintzen ditu (iraupena, arrazoia, ostatu mota, eta abar). Autonomia erkidegoen arteko fluxuak barne hartu direnez, ikuspegi bikoitza erabil daiteke azterketa egiteko: bidaiariak ematen dituen merkatu gisa eta bidaiariak hatzen dituen merkatu gisa, hain zuzen ere.

1. **Bidaiariak ematen dituen merkatu bezala**. Kasu honetan, bidaiariak bizi diren lekua da aldatzen den datua. Euskadiren kasuan, euskal herritarrek bidaiatzeko izandako portaera aztertu da: egindako bidaiak, nora egin diren, ostatu mota, bidaia egiteko modua, eta abar.
2. **Bidaiariak hartzen dituen merkatu bezala**. Estatuko autonomia erkidego guztietako bidaiariak erakartzen dituen merkatu bezala. Kasu honetan, Euskadik izan duen portaera turistikoa aztertu da: etorritako bidaiariak, jatorria, bidaiatzeko garraiobidea, ostatu mota, eta abar.

*La estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur), que realiza el Instituto de Estudios Turísticos, es la fuente estadística básica para el análisis del comportamiento turístico de los residentes en el Estado y ofrece desde 1999, información desagregada de las CC.AA.*

*Esta estadística se centra en los viajes, entendiendo por tal la realización de, al menos, una pernoctación fuera del lugar habitual de residencia, sea cual sea el motivo y el tipo de alojamiento utilizado, es decir no sólo hoteles, casas rurales y campings como, por ejemplo, las estadísticas del Eustat o INE, sino también casas de familiares y amigos, segunda vivienda en propiedad, alquiler de vivienda, etc.*

*Familitur ofrece datos cuantitativos sobre los flujos de viajeros entre las distintas CC.AA. y hacia el extranjero así como las características de estos desplazamientos (tipo de viaje, duración, motivo, alojamiento, etc.). Al incluir los flujos entre CC.AA. es posible hacer un análisis desde la doble perspectiva de mercado emisor y mercado destino.*

1. ***Como mercado emisor de viajeros** la información se centra en los viajes realizados por los ciudadanos residentes en cada CC.AA. Referido a Euskadi, se trata del comportamiento viajero de la ciudadanía vasca: cuántos viajan, quiénes son, tipo de viaje realizado, motivo, destino, alojamiento, cómo se desplazan, etc.*
2. ***Como mercado destino** la información se centra en los viajes que recibe cada CC.AA. por parte de los residentes en el Estado. En este caso se mide la importancia de Euskadi como destino turístico en el conjunto del Estado a través del flujo de viajeros recibidos, de dónde son, cómo vienen, dónde se alojan, etc.*



## Definizio nagusiak

## *Principales definiciones*

Irakurleak irakurriko duena hobeto ulertzeko, datuak aztertzeko orduan kontuan hartu diren aldagai nagusien definizioak idatzi dira jarraian; honakoak dira, hortaz, Espainolen Turismo Mugimenduen estatistikak berak emandako definizio nagusiak:

**Bidaia:** ohiko ingurunetik kanpora egiten den edozein motatako joan etorria, baldin eta gutxienez gau bat kanpoan igarotzen bada.

**Txangoa:** ohiko ingurunetik kanpora egiten den edozein motatako joan etorria, kanpoan gaurik igaro gabe.

**Gaua igarotzea:** bidaiari batek ostatu kolektibo batean edo establezimendu turistiko batean edo pribatu batean igarotzen duen edo erregistratzen duen gau bakoitza.

**Iraupen laburra:** kanpoan igarotako gau kopurua 1-3 artekoa denean.

**Iraupen luzea:** kanpoan igarotako gauak lau edo gehiago direnean.

**Bigarren bizilekua:** familiak ohiko bizilekuaz gain erabiltzen duen beste edozein bizileku, familia bizi den udalerritik kanpo.

**Bidaiak guztira:** bidaia mota guztiak dira. Denboraldiko bidaiak, zubietan egiten direnak, asteburuetako bidaiak, aisialdiko bidaiak, lanak eragindako bidaiak, ikasketek eragindakoak, eta beste arrazoi batzuk eragindako bidaiak bereiz daitezke.

*A fin de facilitar la comprensión del lector se ofrecen, a continuación, las definiciones de las principales variables incluidas en el análisis de los datos, según las recoge la propia Estadística Movimientos Turísticos de los Españoles.*

***Viaje:*** *cualquier desplazamiento fuera del entorno habitual con al menos una pernoctación.*

***Excursión:*** *cualquier desplazamiento fuera del entorno habitual pero sin pernoctación.*

***Pernoctación:*** *cada una de las noches que un viajero permanece o está registrado en un establecimiento de alojamiento colectivo o turístico o privado.*

***Corta duración:*** *cuando el número de pernoctaciones es de 1 a 3 noches.*

***Larga duración:*** *cuando el número de pernoctaciones es igual o superior a cuatro noches.*

***Segunda residencia:*** *cualquier vivienda en propiedad, distinta de la principal y ubicada fuera del municipio de residencia, a la que el hogar puede acceder para pernoctar.*

***Viajes totales:*** *todos los tipos de viajes. Se clasifican en viajes de temporada, puente, fin de semana, otros viajes de ocio, de trabajo, estudio, otros motivos.*



2011n 160,75 milioi bidaia egin dira eta bigarren urtez jarraian behera egin du bidaia-jarduerak, nahiz eta 2010ean baino erritmo motelagoan izan den oraingoan (-% 0,9, -% 5,5en parean). Bidaia horien % 5,2 Euskadiko biztanleek egindako bidaiak dira.

*Los 160,75 millones realizados en 2011, supone por segundo año consecutivo un descenso de la actividad viajera aunque la tasa se ralentiza respecto a 2010 (-0,9% frente a -5,5%). El 5,2% de estos viajes han sido realizados por los residentes en Euskadi.*

# Euskal herritarren bidaia jarduera

# *La actividad viajera de los ciudadanos vascos*

## Euskal Herriaren garrantzia bidaiatzen duten biztanleei dagokienez

## *Importancia del País Vasco como CC.AA. emisora*

Espainolen Turismo Mugimenduen Estatistikaren (Familitur) arabera, 2011n Estatuko biztanleek 160,7 milioi bidaia eta ia 768 milioi gaualdi egin dituzte. 2010eko emaitzekin alderatuta, milioi bat eta erdi bidaia gutxiago dira (-% 0,9) eta 5,8 milioi gaualdi gutxiago (-% 0,77). Datu horiek argi uzten dute bat egin dela 2009an hasitako beherakadarekin.

Bidaia egiten duen biztanlearen autonomia-erkidegoaren arabera, 2011n are garrantzi handiagoa bereganatu dute biztanle gehien dituzten hiru autonomia-erkidegoek. Madril, Katalunia eta Andaluzia dira hiru autonomia-erkidego horiek. Hirurak batera hartuta, 2011n egindako bidaien % 52 metatzen dituzte (% 50 2010ean), eta hirurek lotu dute aurreko urteetako kopuruak areagotzea, +% 2 (Katalunian) eta +% 4 (Madrilen) arteko portzentajeekin.

Egin diren 160,7 milioi bidaien artetik 8,26 milioi euskal herritarrek egindakoak dira, hortaz, % 5,1eko kuotara iritsi dira. 2010ekin alderatuz, bidaia-jarduerak -% 2,4ko beherakada ezagutu du eta Estatuko beherakada (-% 0,9) gainditu da.

*Según la Estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur), en 2011 se realizaron en el Estado 160,7 millones de viajes y casi 768 millones de pernoctaciones. Respecto a 2010 supone un millón y medio menos de viajes (-0,9%) y 5,8 millones menos de pernoctaciones (-0,77%), continuando así la evolución descendente de la actividad viajera iniciada en 2009.*

*Atendiendo a la CC.AA. en la que se origina el viaje se observa que, en 2011, se ha intensificado aún más la importancia viajera de las tres Comunidades con mayor número de habitantes, como son Madrid, Cataluña y Andalucía. Conjuntamente consideradas suman el 52% de los viajes realizados en 2011 (50% en 2010), y las tres aumentan además su cifra respecto al año pasado en porcentajes que oscilan entre un +2% (Cataluña) y un +4% (Madrid).*

*De los 160,7 millones de viajes realizados, los residentes en el País Vasco han protagonizado 8,26 millones, lo que les otorga una cuota del 5,1%. Respecto a 2010, supone una tasa de decrecimiento de la actividad viajera del -2,4%, superior por tanto a la estatal (-0,9%).*

Euskadiren garrantzia egindako bidaien arabera. 2011. (%)
*Importancia de Euskadi según viajes realizados. 2011 (%)*

| | | % |
|---|---|---|
| Andalucía | 4 | 15,7 |
| Aragón | 2 | 4 |
| Asturias | 1 | 3,2 |
| Baleares | 1 | 1,4 |
| Canarias | 1 | 2,6 |
| Cantabria | 1 | 1,1 |
| Castilla-La Mancha | 2 | 4,1 |
| Castilla y León | 3 | 6,1 |
| Cataluña | 4 | 16,9 |
| Comunidad Valenciana | 3 | 8,7 |
| Extremadura | 1 | 2,3 |
| Galicia | 2 | 4,4 |
| Madrid | 4 | 19,4 |
| Murcia | 1 | 2,3 |
| Navarra | 1 | 1,5 |
| Euskal AE/*C.A. de Euskadi* | 3 | **5,1** |
| La Rioja | 1 | 0,9 |




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

**Estatuan egindako bidaien eta gau-kopuruaren banaketa bidaiaria bizi den autonomia erkidegoaren arabera. 2011. (%)**

***Distribución de los viajes y pernoctaciones realizados en el Estado según CC.AA. de residencia. 2011. (%)***

| | Estatua/*Estado* | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Biztanleriaren % *Población* | Bidaiak/*Viajes* | | Gau-kopurua/ *Pernoctaciones* | |
| **Egindakoak guztira/ *Total realizados*** | **100,0** | **160.754.374** | **100,0** | **767.961.721** | **100,0** |
| **Banaketa bidaiaria bizi den autonomia erkidegoaren arabera/ *Distribución según CC. de residencia:*** | | | | | |
| Andaluzia/ *Andalucía* | 17,9 | 25.210.333 | 15,7 | 117.086.483 | 15,2 |
| Aragoi/ *Aragón* | 2,8 | 6.504.237 | 4,0 | 29.098.769 | 3,8 |
| Asturias/ *Asturias* | 2,3 | 5.178.512 | 3,2 | 21.546.613 | 2,8 |
| Balearrak/ *Baleares* | 2,4 | 2.248.314 | 1,4 | 12.813.695 | 1,7 |
| Kanariak/ *Canarias* | 4,6 | 4.141.581 | 2,6 | 21.981.014 | 2,9 |
| Kantabria/ *Cantabria* | 1,3 | 1.795.082 | 1,1 | 7.978.048 | 1,0 |
| Gaztela-Mantxa/ *Castilla la Mancha* | 4,4 | 6.584.956 | 4,1 | 30.674.046 | 4,0 |
| Gaztela eta Leon/ *Castilla y León* | 5,4 | 9.760.992 | 6,1 | 43.075.229 | 5,6 |
| Katalunia/ *Cataluña* | 15,8 | 27.233.093 | 16,9 | 120.586.783 | 15,7 |
| Valentziako Erkidegoa/ *Com. Valenciana* | 10,9 | 13.964.773 | 8,7 | 70.780.070 | 9,2 |
| Extremadura/ *Extremadura* | 2,3 | 3.744.927 | 2,3 | 17.218.936 | 2,2 |
| Galizia/ *Galicia* | 5,9 | 7.039.976 | 4,4 | 31.090.128 | 4,0 |
| Madril/ *Madrid* | 13,8 | 31.137.376 | 19,4 | 161.196.909 | 21,0 |
| Murtzia/ *Murcia* | 3,2 | 3.697.606 | 2,3 | 18.310.288 | 2,4 |
| Nafarroa/ *Navarra* | 1,3 | 2.470.859 | 1,5 | 11.100.035 | 1,4 |
| **Euskadi** | **4,6** | **8.261.488** | **5,1** | **45.197.752** | **5,9** |
| Errioxa/ *La Rioja* | 0,7 | 1.401.778 | 0,9 | 6.213.470 | 0,8 |
| Ceuta eta Melilla/ *Ceuta y Melilla* | 0,3 | 378.491 | 0,2 | 2.013.454 | 0,3 |

**Iturria/*Fuente*:** INE e Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2011.

## Euskal herritar bidaiarien ezaugarriak

## *Características de la población viajera vasca*

Egin diren 8,26 milioi bidaia horiei esker, EAE Estatu osoan bidaia gehien egiten duen seigarren autonomia-erkidegoa da, baina bigarrena da, Madril ondoren, kontuan hartzen bada urtean bidaia bat egin duten pertsonen proportzioa. Estatuan batez beste % 56,7koa da proportzioa, Madrilen % 71koa eta % 69,7koa da, azkenik, EAEn. Bidaiatzeko ohitura zabalduago dagoela esan daiteke.

Urtean zehar otsaila eta azaroa dira bidaia gutxien egiten diren hilabeteak. Abuztua eta apirila dira, berriz, bidaia gehien egiten diren hilabeteak, eta hori normala da, kontuan hartuta orduan izaten direla oporrak.

*Estos 8,26 millones de viajes realizados convierten al País Vasco en la sexta CC. AA. más viajera del Estado pero la segunda, tras Madrid, si se considera la proporción de residentes que, a lo largo del año, han realizado algún viaje. Si en el Estado esta proporción es del 56,7% de media, en Madrid es del 71% y del 69,7% en el País Vasco. Puede decirse que la costumbre de viajar está más extendida.*

*A lo largo del año, Febrero y Noviembre son los meses de menor actividad viajera mientras Agosto y Abril –de acuerdo a los períodos vacacionales– son los que presentan los índices de realización más altos.*

Turisten duten pertsonen proportzioa. Euskadi eta inguruko Autonomia Erkidegoak. 2011
*Proporción de personas turistas. Euskadi y CC.AA. del entorno próximo. 2011*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Bidaiariak: bidaien indizea hilabeteka. 2011 (%). Euskadi eta Estatua
*Personas turistas: Indice de realización de viajes según meses. 2011. (%). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Adinari dagokionez, bi adin-talde nabarmentzen dira (25-44 urte eta 45-64 urte), eta % 30 inguruko portzentajeak erregistratu dituzte. Bestalde, 25 urte arteko gazteak dira bidaiarien % 24 eta 65 urtetik gorakoak dira % 15.

Estatuarekin alderatuz, Euskadin portzentaje altuagoak erregistratu dira 45 urtetik gorako adin-taldean (% 46, % 39ren parean), eta zerbait baxuagoak izan dira gazteen kasuan.

Sexuari dagokionez, banaketa nahiko orekatsua lortu da, nahiz eta emakumezkoek ohiko abantailari eusten dioten (% 52).

*Atendiendo a la edad, el perfil del viajero vasco está bastante segmentado aunque hay dos grupos de edad (25 a 44 y 45 a 64 años) que tienen un mayor peso y además muy similar en torno al 30%. Por su lado, los jóvenes hasta 25 años representan un 24% de los viajeros mientras que los mayores de 64 son los menos numerosos y alcanzan el 15%.*

*Comparando con el Estado, en Euskadi hay mayor proporción de viajeros mayores de 45 años (46% frente a 39%) y algo menor de jóvenes.*

*En cuanto al sexo, la distribución es bastante equilibrada aunque se mantiene la habitual ventaja femenina (52%).*

Bidaiariak: Banaketa adinaren eta sexuaren arabera. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Personas turistas: Distribución según edad y sexo. 2011. (%). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

# Bigarren etxebizitza bat erabiltzeko aukera euskal herritarren kasuan

## *El acceso de los hogares vascos a una segunda vivienda*

2.bizilekua duten familiak eta ez dutenak. 2011. (%). Euskadi eta Estatua.
*Hogares según tengan o no acceso a 2ª residencia. 2011. (%). Euskadi y Estado*







**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Euskal familien % 23,5ek dute beren jabetzako bigarren bizileku bat erabiltzeko aukera.

*Un 23,5% de los hogares vascos tienen acceso a una vivienda de segunda residencia.*

Familitur Estatistikaren arabera, bigarren bizilekua, ohiko bizilekuaz gain pertsona batek bizi den udalerritik kanpo gaualdia igarotzeko erabiltzen duen beste edozein bizileku da.

Definizio horren arabera, euskal familien % 23,5ek erabil dezakete bigarren bizileku bat, eta indize horrek Estatukoa (% 20) gainditzen du, gutxigatik bada ere.

Kasu gehienetan erabiltzailearen jabetzakoa da bigarren bizilekua eta % 79ren kasuan EAEtik kanpo daude. Azken indize horrek nabarmenki gainditzen du Estatuan lortutakoa. Estatuan % 42koa da beste autonomia-erkidego batean bigarren bizileku bat duten biztanleen proportzioa.

*La Estadística Familitur define la segunda residencia como cualquier vivienda distinta de la principal, ubicada fuera del municipio de residencia, y a la que el hogar puede acceder para pernoctar.*

*Según esta definición el 23,5% de los hogares vascos tienen acceso a una segunda vivienda, índice superior al resultante para el conjunto del Estado que escasamente alcanza el 20%.*

*Se trata de un acceso mayoritariamente en régimen de propiedad y que en el 79% de los casos se localiza fuera del País Vasco. Se trata de un índice este último muy superior al del conjunto del Estado donde, por término medio, la proporción de la segunda vivienda en una CC.AA. distinta a la propia es del 42%.*

Bigarren etxebizitzaren jabetza indizea eta kokapena. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Indice de propiedad de la segunda residencia y ubicación de la misma. 2011. (%). Euskadi y Estado*







**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

# Bidaien banaketa bidaia-motaren arabera

## *Distribución de los viajes según tipo*

**Egindako bidaien banaketa bidaia motaren arabera. 2010-2011. (%). Euskadi eta Estatua**

***Distribución de los viajes realizados según tipo de viaje. 2010-2011. (%). Euskadi y Estado***

| Bidaia mota/ *Tipo de viaje* | Egindako bidaiak bizi den lekuaren arabera:/ *Viajes realizados por residentes en:* | | | | Euskadiren kuota/ *Cuota de Euskadi. % 2011* |
|---|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | | Estatua/*Estado* | | |
| | 2010 | 2011 | 2010 | 2011 | |
| | Bidaiak/*Viajes* | | | | |
| **GUZTIRA/ *TOTAL*** | **8.465.478** | **8.261.488** | **162.213.918** | **160.754.374** | **5,1** |
| Banaketa bidaia-motaren arabera (%)/ *Distribución según tipo de viaje (%)* | 100,0 | 100,0 | 100.0 | 100,0 | |
| Zubiak/ Puentes | 2,8 | 2,4 | 3,3 | 2,6 | 4,8 |
| Aisialdiko bestelako bidaiak/ *Otros viajes ocio* | 7,0 | 8,8 | 4,9 | 5,4 | 8,3 |
| Asteburua/ *Fin de semana* | 53,2 | 49,5 | 49,4 | 49,6 | 5,1 |
| Lana/ *Trabajo* | * | 1,8 | 1,8 | 1,9 | 4,7 |
| Ikasketak/ *Estudios* | * | * | 0,6 | 0,5 | |
| Ikasketekin erlazionatutakoak/ *Recurrentes estudios*** | 2,9 | 2,1 | 4,8 | 4,3 | 2,6 |
| Familia/lagunak bisitatzea/ *Visita familia/amigos* | 4,9 | 6,6 | 5,0 | 6,7 | 5,1 |
| Lanarekin erlazionatutakoak/ *Recurrentes trabajo*** | 3,9 | 4,3 | 8,5 | 8,1 | 2,8 |
| Udako oporrak/ *Vacaciones de verano* | 15.8 | 15,7 | 13,1 | 13,4 | 6,0 |
| Gabonetako oporrak/ *Vacaciones Navidad* | 2,0 | 2,2 | 2,4 | 2,8 | 4,1 |
| Aste Santuko oporrak/ *Vacaciones Semana Santa* | 3,6 | 5,2 | 2,9 | 3,4 | 7,9 |
| Hainbat/ Otros | 4.0 | 1,3 | 3.5 | 1,4 | 3,7 |

* Lagin ez esanguratsua / *Muestra no significativa.*
** Bidaia errepikariak izan ohi dira ikasleek eta/edo langileek egiten dituztenak. Astelehenetik ostiralera bidaiatzen dute bizi diren udalerritik kanpora./ *Viajes recurrentes son los realizados por estudiantes y/o trabajadores que viajan de lunes a viernes a un municipio distinto al de residencia.*

**Iturria/*Fuente*:** Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2010-2011.

Asteburuko eta zubietan egindako bidaiak dira bidaien % 52. Ugaritsuenak dira, baina, halaber, 2010ekin alderatuz beherakada handiena ezagutu dutenak ere badira (-% 10).

*El 52% de los viajes realizados han sido de fin de semana y puentes. Son los más numerosos pero también los que experimentan mayor descenso respecto a 2010 (-10%).*

Familitur Estatistikaren arabera, bidaia mota bereizteko kontuan hartzen da aisialdiak edo oporrek irauten duten denbora (asteburua, zubiak, udako oporrak, Aste Santukoak edo Gabonetakoak) eta bidaiatzeko arrazoiak (ikasketak, lana, senideak eta lagunak bisitatzea).

12 bidaia mota bereizten dira, baina guztien artetik ugaritsuena asteburuko bidaia da, hala Euskadin nola Estatuan. Hain zuzen, ostiralean edo larunbatean gaualdia etxetik kanpo igarotzen da eta gehienez ere ostiraletik astelehenera irauten dute mota honetako bidaiek.

EAEn 4 milioira iristen dira, hau da, egin diren 8,26 milioi bidaien erdia (% 49,5); Horiekin batera, kontuan hartu behar dira zubietan egiten diren bidaiak (% 2,4).

*La definición del tipo de viaje según la Estadística Familitur viene marcada bien por la dimensión temporal del ocio y las vacaciones (fin de semana, puentes, vacaciones de verano, de semana santa o de navidad) o bien por la dimensión de los motivos (estudio, trabajo, visita a familiares y amigos).*

*Se diferencian hasta 12 tipos de viajes pero entre ellos, tanto en Euskadi como en el Estado, el más numeroso es el denominado de fin de semana, definido como aquel viaje con al menos una pernoctación en viernes o en sábado y con una duración máxima de viernes a lunes.*

*En el País Vasco suman 4 millones y representan la mitad (49,5%) de los 8,26 millones realizados; a ellos se podrían añadir también los puentes que suponen otro 2,4%.*





Kopuru absolutuei erreparatuz, euskal herritarrek 2011n 4,28 milioi asteburuko edo zubietako bidaia egin zituzten, hau da, -% 9,7ko murrizketa egon da 2010eko 4,74 milioi bidaiekiko. Estatuan, ordea, -% 2koa izan da beherakada.

Gehien egiten den bigarren bidaia mota udako oporretan egiten dena da (% 15,7), baina gaualdi kopuruari erreparatuz, lehenengoa da. Zentzu horretan, euskal herritarrek urtean egindako 45,2 milioi gaualdien artetik 19,2 milioi udako oporretan egin dira. Horrela, udako jarduera-indizea % 42,6koa da –% 38koa Estatuan– eta indize hori Murtzian (% 47,7) eta Madrilen (% 46,6) bakarrik gainditu da. Inguruan dauden Asturias edo Kantabria gisako erkidegoetan ez dute % 30eko proportzioa gainditzea lortu.

*En números absolutos, los vascos realizaron en 2011 4,28 millones de viajes de fin de semana y puentes, lo que supone un descenso del -9,7% respecto a los 4,74 millones de 2010, mientras en el Estado este descenso ha sido del -2%.*

*El segundo tipo de viaje más frecuente es el de las vacaciones de verano (15,7%) pero en número de pernoctaciones resulta el más importante. Basta decir que de los 45,2 millones de pernoctaciones anuales que realizan los vascos, 19,2 millones se han hecho en las vacaciones de verano. Supone un índice de actividad estival del 42,6% –38% en el Estado– sólo superado por el de Murcia (47,7%) y Madrid (46,6%) mientras en CC.AA. próximas como Asturias o Cantabria no supera el 30%.*

Euskal herritarrak dira protagonista Estatuan erregistratutako gaualdien % 5,9an, baina kontuan hartzen badira udako oporrak bakarrik, % 6,6ra iristen da EAEko kuota.

*Los vascos protagonizan el 5,9% de las pernoctaciones anuales registradas en el Estado pero referido solo a las vacaciones de verano su cuota aumenta al 6,6%.*

Bidaien banaketa bidaia-motaren arabera. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Distribución de los viajes realizados según tipo. 2011. (%). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

## Euskal herritarrek egindako turismo-bidaien norakoa

## *Destino de los viajes realizados por los ciudadanos vascos*

Euskal herritarrek egindako bidaien % 91 Estatuko autonomia-erkidego batera egin dira. 2011n Euskadi indartuta atera da euskaldunen norako nagusi gisa (% 18,4).

*El 91% de los viajes que realizan los vascos tienen como destino alguna CC.AA. del Estado. En 2011, Euskadi refuerza su condición de primer destino para los propios vascos (18,4%).*

Norakoa kontuan hartuta, Familitur Estatistikak lehen bereizketa bat egiten du: Estatuko autonomia-erkidego batera egiten diren bidaiak (barruko bidaiak) eta atzerrira egiten direnak bereizten ditu.

2011n Estatuan egindako bidaien % 91,7 barne-bidaiak dira eta % 8,3 dira atzerri egindako bidaiak, beraz, 2010eko banaketari eutsi zaio. EAEn bertako biztanleek egindako bidaien gehiengoa barne-bidaiak dira, halaber (% 91), eta % 9 bakarrik dira atzerrira egindako bidaiak. Hala ere, 2010eko datuekin alderatuz, baita 2009koekin alderatuz ere, atzerrira egindako bidaien garrantzia indartu egin dela ikus daiteke.

Barne-bidaiei helduta, euskaldunek egindako bidaien bereizgarrietako bat da autonomia-erkidego gutxi batzuk aukeratzeko joera. Horrela, 2011n joera hori errepikatu egin da, nahiz eta ez den hain modu nabarmenean gertatu. 2010ean Kantabriara, Euskadira eta Gaztela eta Leonera egin ziren bidaien % 49. 2011n, berriz, % 44koa izan da proportzioa.

*Considerando el destino, la Estadística Familitur segmenta en primer lugar los viajes según éstos se dirijan a alguna CC.AA. del Estado (viajes internos) o al extranjero.*

*En 2011, en el conjunto del Estado, el 91,7% de los viajes han sido internos y el 8,3% al extranjero, manteniéndose sin cambios la distribución de 2010. En el País Vasco, los viajes realizados por sus residentes son también en su gran mayoría internos (91%) y sólo un 9% tienen como destino algún país extranjero aunque comparando con 2010 –e incluso 2009– se aprecia un ligero aumento de la importancia de éstos últimos.*

*En los viajes internos, la tendencia a la concentración en unas pocas CC.AA. de destino es una característica de los viajes que realizan los vascos y, en 2011, aquélla se repite, aunque lo hace de una forma menos acusada. Si en 2010 Cantabria, Euskadi y Castilla-León acogían el 49% de los viajes, en 2011 estas tres CC.AA. concentran el 44% de los mismos.*

**Egindako bidaien banaketa aukeratutako autonomia erkidegoaren arabera. 2010-2011. (%). Euskadi eta Estatua**

***Distribución de los viajes realizados según CC.AA. de destino. 2010-2011. (%). Euskadi y Estado***

| | Egindako bidaiak bizi den lekuaren arabera:/ *Viajes realizados por residentes en:* | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | | Estatua/*Estado* | |
| | 2010 | 2011 | 2010 | 2011 |
| **Egindakoak guztira/ *Total realizados*** | **8.465.478** | **8.261.488** | **162.213.918** | **160.754.374** |
| **Barruko turismoa (E.ren barruan) (%)/ *Turismo interno (dentro del Eº) (%)*** | 92,5 | 91.0 | 91,6 | 91,7 |
| **Kanpoko turismoa (atzerrira) (%)/ *Turismo emisor (al extranjero) (%)*** | 7,5 | 9,0 | 8,4 | 8,3 |
| **Banaketa aukeratutako autonomia erkidegoaren arabera (%)/ *Distribución según CC. de destino (%):*** | | | | |
| Andaluzia/ *Andalucía* | 2,7 | 3,7 | 16,4 | 16,7 |
| Aragoi/ *Aragón* | 2,1 | 2,3 | 3,7 | 3,7 |
| Asturias/ *Asturias* | 2,5 | 3,0 | 2,8 | 3,2 |
| Balearrak/ *Baleares* | * | * | 1,7 | 1,8 |
| Kanariak/ *Canarias* | 1,5 | 1,8 | 3,1 | 2,8 |
| Kantabria/ *Cantabria* | 17,6 | 9,9 | 2,3 | 2,0% |
| Gaztela-Mantxa/ *Castilla la Mancha* | * | * | 7,0 | 7,2 |
| Gaztela eta Leon/ *Castilla y León* | 15,0 | 15,8 | 10,7 | 9,8 |
| Katalunia/ *Cataluña* | 4,5 | 4,3 | 13,0 | 13,8 |
| Valentziako Erkidegoa/ *Com. Valenciana* | 4,3 | 3,5 | 9,7 | 9,7 |
| Extremadura/ *Extremadura* | * | * | 2,9 | 2,7 |
| Galizia/ *Galicia* | 2,6 | 2,3 | 5,0 | 4,7 |
| Madril/ *Madrid* | 4,3 | 5,7 | 6,2 | 6,3 |
| Murtzia/ *Murcia* | * | * | 2,2 | 2,2 |
| Nafarroa/ *Navarra* | 8,1 | 11,2 | 1,5 | 1,5 |
| Euskadi | 16,8 | 18,4 | 2,2 | 2,4 |
| Errioxa/ *La Rioja* | 8,0 | 5,9 | 1,0 | 1,0 |
| Ceuta eta Melilla/ *Ceuta y Melilla* | * | * | 0,2 | 0,1 |
| Autonomia Erkidego isolatua delako eraginik gabe/ *Sin significación como CC.AA. aislada* | 2,5 | 3,2 | – | – |

* Lagin ez esanguratsua/ *Muestra no significativa.*

**Iturria/*Fuente*:** Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2010-2011.

Egindako bidaien banaketa norakoaren arabera. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Distribución de los viajes realizados según destino. 2011. (%). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

2011n Kantabriak eta Errioxak norako gisa garrantzia galdu duten bitartean, Euskadi eta Nafarroa indartuta atera dira.

*Mientras Cantabria y la Rioja pierden en 2011 importancia como destino, Euskadi y Navarra ven aumentar la suya.*

Beherakada hori Kantabriak ezagututako murrizketak eragin du –oso kaltetua 2011n bertara egindako asteburuko eta zubietako bidaiei dagokienez–, izan ere, hala Gaztela eta Leonen (% 15,8) nola Euskadin (% 18,4) berretsi egin da norako hartzaile gisa duten indarra eta +% 3ko eta +% 7ko hazkundeak ezagutu dituzte, hurrenez hurren.

Hiru autonomia-erkidego horien ondoren dago Nafarroa eta 2011n egindako bidaien % 11 bereganatzen ditu (+% 35). Ondoren daude, antzeko garrantziarekin, Errioxa (% 5,9) eta Madril (% 5,7), baina azken horretan 2010eko datuak +% 39 hobetu diren bitartean, Errioxan -% 28ko murrizketa ezagutu da.

Azkenik, Katalunia (% 4), Andaluzia (% 3,7) eta Valentziako Erkidegoa (% 3,5) daude, antzeko garrantzia duten norako gisa. Hirurek lotura handia dute oporretan egiten diren joan-etorriekin, baina urteko bilakaera desberdina izan da: Andaluzian gora egin da (+% 45), Katalunian egoera egonkor mantendu da (+% 1) eta Valentzian beherakada ezagutu dute (-% 18).

*Este descenso se debe a la caída de Cantabria, muy perjudicada en lo que se refiere a viajes de fin de semana y puentes recibidos en 2011 (-49%) porque tanto Castilla-León (15,8%) como Euskadi (18,4%) confirman un año más su condición receptora, con incrementos del +3% y +7% respectivamente respecto a 2010.*

*Tras estas tres CC.AA. hay que mencionar a Navarra que en 2011 acogió el 11% de los viajes realizados (+35%). Tras ella y con una importancia similar aparecen La Rioja (5,9%) y Madrid (5,7%) pero mientras ésta última recibe un +39% de viajes respecto a 2010, la Rioja recibe un -28%.*

*Finalmente Cataluña (4%), Andalucía (3,7%) y Comunidad Valenciana (3,5%) aparecen como destinos de importancia similar, muy asociados a desplazamientos vacacionales y con una evolución anual dispar que puede resumirse en crecimiento andaluz (+45%), estabilidad catalana (+1%) y descenso valenciano (-18%).*

Euskal herritarrek egindako bidaien xede-erkidegoa. 2011
*CC.AA. de destino de los viajes realizados por los vascos. 2011*

| | | % |
|---|---|---|
| Andalucía | 2 | 3,7 |
| Aragón | 1 | 2,3 |
| Asturias | 1 | 3 |
| Baleares | 1 | – |
| Canarias | 1 | 1,8 |
| Cantabria | 3 | 9,9 |
| Castilla-La Mancha | 1 | – |
| Castilla y León | 4 | 15,8 |
| Cataluña | 2 | 4,3 |
| Comunidad Valenciana | 2 | 3,5 |
| Extremadura | 1 | – |
| Galicia | 1 | 2,3 |
| Madrid | 3 | 5,7 |
| Murcia | 1 | – |
| Navarra | 4 | 11,2 |
| Euskal AE/*C.A. de Euskadi* | 4 | **18,4** |
| La Rioja | 3 | 5,9 |




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). I.E.T.

## Bidaien iraupena

## *Duración de los viajes*

2011n euskal herritarrek egindako bidaien % 62,5 bidaia laburrak izan dira eta horietatik gehiengoa (% 79) asteburuetan eta zubietan egin dira.

*El 62,5% de los viajes que realizó en 2011 la población vasca fueron viajes cortos, entre los cuales el 79% corresponden a desplazamientos de fin de semana.*

Familitur Estatistikaren arabera, hiru gaualdi gainditzen ez dituzten bidaiak dira iraupen laburreko bidaiak. Definizio horren arabera, 2011n euskal herritarrek egindako bidaien % 62,5 bidaia laburrak izan ziren eta gainerako % 37,5 bidaia luzeak. Estatuan, berriz, % 66 eta % 34 izan dira portzentajeak, hurrenez hurren.

2010eko datuekin alderatuz, Euskadin +% 5,5eko gorakada ezagutu dute bidaia luzeek. Estatuan, aitzitik, -% 2 gutxiago izan dira.

Iraupen laburreko bidaien artetik asteburukoak azpimarratu behar dira: % 79 dira kategoria honetan.

Bidaia luzeen artean askotariko bidaiak bereiz daitezke, baina garrantzitsuenak dira udako oporretan egiten direnak (% 42) eta aisialdia dela eta egiten direnak (% 21). Portzentaje baxuagoak erregistratu dituzte Aste Santuko bidaiek (% 10), senideak bisitatzeko egiten diren bidaiek (% 6,5) edo ikasketak (% 5,6) edo lana (% 4,7) direla eta egin beharrekoek.

Bidaia luzeen artean, 4-7 eguneko bidaiak dira gehiengoa (% 52). Ia heren bat 8-15 eguneko bidaiak dira eta 15 egunetik gorakoak dira % 16.

*La Estadística Familitur considera que un viaje es de corta duración cuando no supera las tres pernoctaciones. De acuerdo a esta definición, el 62,5% de los viajes que, en 2011, realizó la población vasca fueron viajes cortos y el 37,5% restante viajes largos mientras que en el Estado, esta división fue de 66%-34%.*

*Comparando con 2010 la realización de viajes largos en Euskadi ha crecido un +5,5% al contrario que en el Estado, donde han disminuido un -2%.*

*Entre los viajes de corta duración destacan los desplazamientos de fin de semana que representan el 79% de esta categoría.*

*Entre los viajes largos, hay una mayor diversidad pero los más relevantes son los viajes por vacaciones de verano (42%) y otros viajes por ocio (21%). Con menos peso aparecen también viajes realizados en Semana Santa (10%), viajes que se realizan para visitar a familiares (6,5%) o viajes recurrentes bien por estudios (5,6%) o por trabajo (4,7%).*

*Dentro de los viajes largos, la duración más frecuente (52%) es la que oscila entre 4 y 7 días mientras que casi un tercio dura entre 8 y 15 días y el 16% se alarga por encima de los 15 días.*

Egindako bidaien banaketa iraupenaren arabera. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Distribución de los viajes realizados según duración. 2011. (%). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

**Egindako bidaien banaketa egonaldiaren iraupenaren eta antolamendu motaren arabera. 2010-2011. (%). Euskadi eta Estatua**

***Distribución de los viajes realizados según duración de la estancia y forma de organización. 2010-2011. (%). Euskadi y Estado***

| | **Egindako bidaiak bizi den lekuaren arabera/ *Viajes realizados por residentes en:*** | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **Euskadi** | | **Estatua/*Estado*** | |
| | **2010** | **2011** | **2010** | **2011** |
| **Egindakoak guztira/*Total realizados*** | **8.465.478** | **8.261.488** | **162.213.918** | **160.754.374** |
| **Banaketa egonaldiaren iraupenaren arabera (%)/ *Distribución según duración de la estancia (%)*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Iraupen laburra/*Corta duración* | 65,3 | 62,5 | 65,7 | 66,1 |
| Iraupen luzea/*Larga duración* | 34,7 | 37,5 | 34,3 | 33,9 |
| **Iraupen luzeko bidaien banaketa iraupenaren arabera (%)/*Distribución viajes larga duración según duración (%):*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| 4-7 egun bitartean/*4 a 7 días* | 52,1 | 51,7 | 62,9 | 60,7 |
| 8-15 egun bitartean/*8 a 15 días* | 31,0 | 32,3 | 24,1 | 25,4 |
| 15 egun baino gehiago/*Más de 15 días* | 16,8 | 16,0 | 13,0 | 13,9 |
| **Batez besteko egonaldia/ *Estancia media*** | 5,1 | 5,5 | 4,7 | 4,8 |
| **Banaketa antolamendu-moduaren arabera *(%)/Distribución según forma de organización (%):*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Erreserbarekin/*Con reserva* | 25,6 | 29,7 | 23,5 | 27,6 |
| Erreserbarik gabe/*Sin reserva* | 74,4 | 70,3 | 76,3 | 72,4 |
| Ed/Ee/*Ns/nc* | -- | -- | 0,2 | -- |
| **Interneten erabilera (baiezko erantzunen %)/*Uso de Internet (% respuestas afirmativas):*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Internet erabiltzen du/*Lo usa* | 24,0 | 27,3 | 24,3 | 26,9 |
| • Informazioa bilatzeko/*Para buscar información* | 23,3 | 26,0 | 23,1 | 25,5 |
| • Erreserbak egiteko/*Para hacer una reserva* | 17,0 | 20,7 | 17,4 | 19,8 |
| • Azken ordainketa egiteko/*Para efectuar el pago final* | 10,4 | 13,1 | 9,5 | 12,0 |
| Ez du erabiltzen/ *No lo usa* | 76,0 | 72,7 | 75,7 | 73,1 |

**Iturria/*Fuente*:** Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2010-2011.

Bidaiak iraupenaren arabera sailkatu dira eta sailkapen horren arabera, 2011n 5,5 egunekoa da bidaien batez besteko iraupena; 2010ean 5,1 egunekoa zen. Bidaiak luzeagoak dira eta horretan eragina eduki du bidaia gehiago egin izanak eta, ondorioz, Estatuko batez bestekoaren (4,8 egun) gainetik geratu da EAEko bidaien batez besteko iraupena.

Interneten erabilerari dagokionez, % 27k bakarrik erabili dute (% 24k 2010ean) eta horietatik % 95ek informazioa bilatzeko egin dute.

*De acuerdo a cómo se han distribuido los viajes según su duración, la estancia media en 2011 se sitúa en los 5,5 días frente a los 5,1 días de 2010. A este alargamiento ha contribuido la mayor realización de viajes largos que hace también que se mantenga la habitual ventaja vasca respecto al promedio estatal (4,8 días).*

*En cuanto al uso de Internet, sólo el 27% lo ha utilizado (24% en 2010) y lo ha hecho en el 95% de los casos para buscar información.*

Bidaien % 30an bakarrik egin da aldez aurretik erreserba, baina proportzio horrek gora egiten du (% 83) bidaia luzeen kasuan.

*Aunque sólo el 30% de los viajes se realiza con reserva previa, esta proporción es del 48% cuando se trata de viajes largos.*



## Bidaien arrazoiak

## *Motivos de los viajes*

Familitur-ek bidaiatzeko bi arrazoi garrantzitsu bereizten ditu hasteko: arrazoi pertsonalak edo lanarekin/negozioekin erlazionatutakoak.

Arrazoi pertsonalak izan ohi dira ohikoenak eta 2011n euskal herritarrek egindako bidaien % 94 arrazoi pertsonalek eragindako bidaiak dira. % 6 bakarrik dira lanak edo negozioek eragindako bidaiak.

2010ekin alderatuz, bidaia pertsonalek -% 2ko murrizketa ezagutu dute eta lanak eragindako bidaiek, aitzitik, +% 12ko gorakada ezagutu dute, nahiz eta ez den lortu 2009ko mailara iristea (-% 33).

Estatuan lanak eragindako bidaia kopuruak behera egin du 2011n, halaber. 2009an % 15 ziren, 2010ean % 13 eta 2011n % 10. Edozein kasutan, Euskadiko pisua gainditzen dute.

Bigarren maila batean, Familitur-ek arrazoi pertsonalen artean mota desberdinak bereizten ditu: ikasketak, senideak edo lagunak bisitatzea, aisialdia/oporrak eta hainbat. Osasun-tratamenduek edo erlijioak eragindako bidaiek ez dute ia agerpenik EAEn.

Bidaiatzeko lehen arrazoia aisialdia/oporrak dira, nabarmen. 2011n bidaien % 60 dira (% 54 Estatuan), eta senideak eta lagunak bisitatzea da bidaiatzeko bigarren arrazoi garrantzitsuena, % 30eko proportzioarekin.

*Familitur diferencia en un primer momento dos grandes motivos por los que se viaja: motivos personales o por trabajo/negocios.*

*Los motivos personales son tradicionalmente los más frecuentes y en 2011 explican el 94% de los desplazamientos de la población vasca mientras que sólo en un 6% es por trabajo o negocios.*

*La importancia de los viajes cortos aumenta todavía más cuando son viajes protagonizados tanto por los propios residentes en el País Vasco (78%) como por aquéllos que vienen de las Comunidades Autónomas del entorno próximo, en clara sintonía con el tipo de viaje que más acostumbran a hacer (fines de semana y puentes).*

*Referido a éstas últimas, los castellano-leoneses son los que más recurren al viaje corto en su visita al País Vasco (82%) a los que siguen los que vienen de la Rioja (78%), Aragón (75%) y Navarra (70%).*

*Sin embargo en los viajes procedentes de Comunidades como Madrid y Cataluña, los viajes cortos pierden relevancia y representan el 52% y el 55% del total.*

*Relacionando la duración con el tipo de viaje se observa que todos los recibidos por vacaciones de verano son largos, como lo son el 99% de los recurrentes por estudios.*

Iraupen luzeko bidaiak egiteko joera indartu egiten da udako oporretako bidaietan (% 100) zein ikasketek (% 99) eta lanak (% 40) eragindakoetan.

*La tendencia a realizar viajes de larga duración aumenta entre los viajes por vacaciones de verano (100%) así como en los recurrentes por estudios (99%) y por trabajo (40%).*

**Euskadira egindako bidaien banaketa egonaldiaren iraupenaren arabera. 2010-2011. (%). Euskadi eta Estatua**

***Distribución de los viajes según duración de la estancia. 2010-2011. (%). Euskadi y Estado***

| | Norakoa/*Destino* | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | | Estatua/*Estado* | |
| | 2010 | 2011 | 2010 | 2011 |
| **Jasotakoak guztira/*Total recibidos*** | **3.556.556** | **3.782.019** | **148.591.192** | **147.407.636** |
| **Banaketa egonaldiaren iraupenaren arabera (%):** ***Distribución según duración de la estancia (%):*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Iraupen laburra/*Corta duración* | 65,1 | 68,3 | 68,5 | 69,0 |
| Iraupen luzea/*Larga duración* | 34,9 | 31,7 | 31,5 | 31,0 |
| **Iraupen luzeko bidaien banaketa iraupenaren arabera (%):** ***Distribución viajes larga duración según duración (%):*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| 4-7 egun bitartean/*4 a 7 días* | 73,9 | 67,5 | 64,3 | 62,8 |
| 8-15 egun bitartean/*8 a 15 días* | 18,8 | 24,3 | 23,8 | 24,5 |
| 15 egun baino gehiago/*Más de 15 días* | 7,3 | 8,2 | 11,9 | 12,7 |
| **Batez besteko egonaldia/*Estancia media*** | 3,8 | 4,0 | 4,3 | 4,4 |

**Iturria/*Fuente***: Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2010-2011.

# Bidaiaren arrazoia eta erabilitako garraiobidea

## *Motivo del viaje y medio de desplazamiento*

Euskadira egindako bidaien banaketa arrazoiaren arabera. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Distribución de los viajes recibidos según motivo. 2011. (%). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Lanak edo negozioek eragindako bidaiek gora egin dute 2011n (+% 61) eta EAEra egindako bidaien % 19 dira.

*Los viajes por trabajo o negocios aumentan en 2011 un +61% y suponen un 19% de los recibidos en el País Vasco.*

Familitur Estatistikak bidaiatzeko bereizten dituen bi arrazoi multzoen artetik (arrazoi pertsonalak eta lanak/negozioek eragindako arrazoiak), arrazoi pertsonalek eragindako bidaiak dira gehiengoa eta Estatuan barne-bidaien % 91 dira.

EAE arrazoi pertsonalek eragindako bidaien norako hartzailea ere bada, baina Estatuko batez bestekoarekin alderatuz, garrantzi gutxiago du (% 81), lanak/negozioek eragindako bidaiek agerpen handiagoa baitute. EAEra egiten diren bidaien ia % 19 dira, eta Estatuan % 9.

Arrazoi pertsonalen barruan, EAEra etortzeko lehenengo arrazoia –ez da aldatu 2010eko datuekiko– familia eta lagunak bisitatzea da (% 38), eta ondoren daude aisialdia eta oporrak (% 34). Azken arrazoi hori da arrazoi nagusia Estatuan eta bertako barne-bidaien % 54 eragiten ditu.

*De los dos grupos de motivos que la Estadística Familitur contempla para viajar –personales y por trabajo/negocios– el relativo a motivos personales es mayoritario y aglutina en el Estado el 91% de los viajes internos.*

*El País Vasco es también un destino asociado a los motivos personales pero comparando con el promedio estatal, su importancia es algo menor (81%) al aumentar la que tienen los desplazamientos por trabajo/negocios. Estos representan casi el 19% de los viajes recibidos cuando en el Estado suponen un 9%.*

*Dentro de los motivos personales, el primero por el que se viene al País Vasco –y sin cambios respecto a 2010– es el específico de la visita a familiares y amigos (38%) al que le sigue el del ocio y las vacaciones (34%), motivo éste que, en el Estado, es el principal y explica el 54% de los viajes internos.*



EAEra egindako bidaietan garatutako jarduera nagusiak. 2011. (baiezko erantzunen %). Euskadi eta Estatua
*Principales actividades realizadas en los viajes al País Vasco. 2011. (% respuestas afirmativas). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Aire zabaleko jarduerak, menditik edo hondartzatik paseatzea, adibidez, kirol-praktika eta kultur jarduerak jarduera garrantzitsuak dira Asturiasen eta Kantabrian, EAEn baino gehiago.

*Las actividades al aire libre como pasear por el campo o la playa, la práctica deportiva e incluso las actividades culturales son actividades más reconocidas en destinos como Asturias y Cantabria que en el País Vasco.*

Bidaietan egiten diren jarduerei dagokienez, aurten ere erosketak dira EAEra egindako bidaien jarduera nagusia (% 66), eta ondoren aipatu dira familia eta lagunak bisitatzea (% 60), kultur bisitak (% 59) eta gastronomia (% 58).

Baina ez erosketak ez gastronomia ez dira EAEko jarduera esklusiboak eta antzeko emaitzak lortu dituzte Nafarroa, Kantabria edo Asturias gisako inguruko autonomia-erkidegoetan. Hala ere, ez da gauza bera gertatzen familiari eta lagunei bisitatzeko egiten diren bidaiekin: EAEn inguruko autonomia-erkidegoetan baino gehiago dira mota horretako bidaiak, eta inguruko autonomia-erkidegoetan indize altuagoak lortu dituzte kirol-jarduerak eta naturarekin erlazionatutako jarduerak egiteko bidaiei dagokienez.

Bidaiatzeko garraiobideari dagokionez, automobila da, alde nabarmen batekin, gehien erabiltzen dena (% 76).

*Referido a las actividades realizadas en los viajes, las compras son un año más la actividad más extendida en los realizados al País Vasco (66%), seguida por la visita a familiares y amigos (60%), las visitas culturales (59%) y la gastronomía (58%).*

*Pero ni las compras ni la gastronomía son actividades exclusivas del País Vasco, porque el reconocimiento es similar en CC.AA. próximas como Navarra, Cantabria o Asturias. Sin embargo, no ocurre igual con la visita a familiares y amigos cuya realización sí es superior en el País Vasco que en las mencionadas CC.AA. donde comparativamente hablando aumenta el reconocimiento de actividades deportivas y de naturaleza con índices de realización sensiblemente superiores.*

*En cuanto al medio de desplazamiento, el automóvil es con gran diferencia el más utilizado (76%).*

Euskadira egindako bidaien banaketa garraiobidearen arabera. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Distribución de los viajes recibidos según medio de desplazamiento 2011. (%). Euskadi y Estado*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

# Antolamendu mota

# *Forma de organización*

**Euskadira egindako bidaien banaketa antolamendu moduaren arabera. 2010-2011. (%). Euskadi eta Estatua**

***Distribución de los viajes según forma de organización. 2010-2011. (%). Euskadi y Estado***

| | Norakoa/*Destino* | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | | Estatua/*Estado* | |
| | 2010 | 2011 | 2010 | 2011 |
| **Jasotakoak guztira/*Total recibidos*** | **3.556.556** | **3.782.019** | **148.591.192** | **147.407.636** |
| **Banaketa antolamendu-moduaren arabera (%):**<br>***Distribución según forma de organización (%):*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Erreserbarekin/*Con reserva* | 20,6 | 20,3 | 20,0 | 23,9 |
| Erreserbarik gabe/*Sin reserva* | 79,3 | 79,6 | 79,9 | 76,0 |
| **Interneten erabilera (baiezko erantzunen %):**<br>***Uso de Internet (% respuestas afirmativas):*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Internet erabiltzen du/*Lo usa* | 19,5 | 28,0 | 19,5 | 22,3 |
| • Informazioa bilatzeko/ *Para buscar información* | 18,3 | 27,1 | 18,7 | 21,1 |
| • Erreserbak egiteko/ *Para hacer una reserva* | 15,5 | 24,5 | 13,4 | 12,9 |
| • Azken ordainketa egiteko/ *Para efectuar el pago final* | 9,4 | 13,6 | 5,9 | 8,1 |
| Ez du erabiltzen/*No lo usa* | 80,5 | 72,0 | 80,5 | 77,7 |

**Iturria/*Fuente***: Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2010-2011.

2011n jasotako bidaien % 11 EAEra lehen aldiz egindako bidaiak dira eta gainerako % 89 errepikapen-fluxuak dira, eta horrek azaltzen du bidaien ia % 80 erreserbarik gabe egitea.

Estatuan % 10 dira lehen aldiz egindako bidaiak eta % 90 errepikatu direnak, eta desberdintasun nabarmenak ikus daitezke norako gisa aukeratutako autonomia-erkidegoaren arabera. Izan ere, Balearretan eta Kanarietan lehen aldiz egindako bidaiek % 23ko indizea lortu dute, baina Gaztela-Mantxan eta Madrilen jasotako bidaien % 6 eta % 4 dira bakarrik, hurrenez hurren.

Bidaien % 28an Internet erabili da bidaiatu aurretik. Kasu askotan, informazioa bilatzeko izan da (bidaien % 27,1), eta beste askotan, erreserba egiteko (% 24,5).

*En 2011 el 11% de los viajes recibidos son viajes en los que se viene por primera vez al País Vasco mientras que en el 89% restante se trata de flujos de repetición, lo que explica que casi en el 80% de los viajes no se haga reserva previa.*

*En el Estado, esta segmentación ha sido del 10% primerizos-90% de repetición, con diferencias notables según CC.AA. de destino porque si en Baleares y Canarias los viajes primerizos suponen el 23% y 18% de los viajes recibidos, en Castilla la Mancha y Madrid sólo suponen el 6% y 4%.*

*En el 28% de los viajes se ha recurrido previamente a Internet. En una gran mayoría de los casos para buscar información (27,1% de los viajes) pero también para formalizar la reserva (24,5%).*

1-10 indizearen araberako asetasun-eskala batean, EAEk 8,9ko batez besteko asetasuna lortu du norako gisa (8,6 Estatuan).

*En una escala de satisfacción de 1 a 10, el País Vasco como destino obtiene un grado medio de satisfacción del 8,9 (8,6 en el Estado).*

Interneten erabilera indizea. 2011. (%). Euskadi* eta Estatua
*Indice de utilización de Internet. 2011. (%). Euskadi* y Estado*




* Informazio hau bidaien %19-an bakarrik dago/*Sólo se dispone de esta información en un 19% de los viajes.*

**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

# Ostatu-mota

# *Tipo de alojamiento*

**Euskadira egindako bidaien banaketa aukeratutako ostatu motaren arabera. 2010-2011. (%). Euskadi eta Estatua**

***Distribución de los viajes recibidos según tipo de alojamiento utilizado. 2010-2011. (%). Euskadi y Estado***

| | Norakoa/*Destino* | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Euskadi | | Estatua/*Estado* | |
| | 2010 | 2011 | 2010 | 2011 |
| **Jasotakoak guztira/*Total recibidos*** | **3.556.556** | **3.782.019** | **148.591.192** | **147.407.636** |
| **Banaketa aukeratutako ostatu-motaren arabera (%)**<br>***Distribución según tipo de alojamiento (%)*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Hotelak eta antzekoak/*Hoteles y similares* | 19,2 | 23,2 | 17,8 | 19,3 |
| Turismogunea/*Complejo turístico* | ** | ** | 0,2 | 0,1 |
| Kanpina/karabana/*Camping/caravana* | ** | ** | 2,3 | 2,2 |
| Etxebizitza propioa, jabetzanitzeko etxebizitza/*Vivienda propia, multipropiedad* | 14,1 | 13,4 | 29,0 | 27,0 |
| Partikularrei alokatutako extebizitza/*Vivienda alquiler a particulares* | 6,5 | 5,8 | 7,0 | 6,1 |
| Agentziari alokatutako etxebizitza/*Vivienda alquiler a agencia* | ** | 1,9 | 1,3 | 1,5 |
| Familia edo lagunen etxebizitza/*Vivienda familiar o amigos* | 45,2 | 47,5 | 36,2 | 38,5 |
| Espezializatuak/*Especializados** | 4,7 | 4,9 | 2,3 | 2,2 |
| Landa-etxea/*Casa rural* | ** | ** | 2,2 | 2,4 |
| Lagin ez esanguratsua edo Hainbat/*Muestra no significativas u otros* | 10,3 | 3,4 | 1,7 | 0,7 |

* Espezializatuak/Especializados: Aterpe, Bainuetxe, Osasun-Etxe, Komentu..../*Albergue, Balneario, Centro Sanitario, Convento, etc.*

** Lagin ez esanguratsua/*Muestra no significativa.*

**Iturria/*Fuente*:** Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2010-2011.

Ostatu motari dagokionez, EAEk norako gisa desberdintasun nabarmenak ditu Estatuarekin alderatuz, nahiz eta bi kasuetan gehien erabili diren ostatu motak diren familiaren edo lagunen etxea, hotelak eta etxebizitza propioa.

Familiaren edo lagunen etxea da beti ostatu mota nagusia, baina EAEn are gehiago (% 48, % 39ren parean), familia eta lagunak bisitatzeko egiten diren bidaien protagonismo handiaren eraginez.

Hotela da EAEn gehien erabiltzen den bigarren ostatu mota (% 23), baina hirugarrena da Estatuan (% 19), non etxebizitza propioaren erabilera gainditzen duen. Hain zuzen ere, EAEn erregistratu du portzentajerik baxuena etxebizitza propioaren erabilerak: % 13koa da portzentajea EAEn eta % 27koa Estatuan.

*En relación al alojamiento, el País Vasco como destino presenta diferencias con el Estado aunque en ambos casos los tres más utilizados son la vivienda familiar o de amigos, los hoteles y la vivienda propia.*

*La vivienda familiar o de amigos es siempre la solución más frecuente pero en el País Vasco aún más (48% frente a 39%) de acuerdo al protagonismo de los viajes para visitar a familiares y amigos.*

*El hotel es el segundo alojamiento más utilizado en el País Vasco (23%) pero el tercero en el Estado (19%) donde le supera la vivienda propia. Precisamente en el menor uso de la vivienda propia es donde más se diferencia el País Vasco, con un índice del 13% frente al 27% en el Estado.*

2011n % 32ko gorakada ezagutu du EAEra egindako bidaietan hotela aukeratu duten pertsonen proportzioak eta % 23koa da hotelen erabilera-indizea.

*En 2011 crece un 32% el número de viajes al País Vasco que utilizan el hotel como alojamiento cuyo. índice de utilización se sitúa en el 23%.*

Euskadira egindako bidaien banaketa aukeratutako ostatuaren arabera. 2011. (%). Euskadi eta Estatua
*Distribución de los viajes recibidos según alojamiento utilizado. 2011. (%). Euskadi y Estado*




* Espezializatuak/Especializados: Aterpe, Bainuetxe, Osasun-Etxe, Komentu..../*Albergue, Balneario, Centro Sanitario, Convento, etc.*

**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

# AE-ko bezero nagusien hurbilketa

# *Aproximación a los principales clientes del País Vasco*

## Bidaiaren profila

## *El perfil de los viajeros*

Gutxiago izan dira 25 urtetik beherako gazteek EAEra egindako bidaiak. 2010ean guztizkoaren % 26 ziren bitartean, % 21,7 dira 2011n.

*Descienden los viajes al País Vasco protagonizados por jóvenes menores de 25 años. Si en 2010 suponían el 26% del total, en 2011 representan el 21,7%.*

Jasotako bidaiak bidaiarien profil soziodemografikoaren arabera aztertzen badira ikus daitekeen moduan, EAEk bi ezaugarri ditu norako gisa eta nahiko egonkor mantentzen dira, gainera. Lehenengo ezaugarria da adina nahiko markatuta duten bidaiariak direla. Zentzu horretan, 45 urtetik gorako pertsonek egindako bidaiak dira gehiengoa (% 41), eta gutxiago dira 25 urtetik beherako pertsonek egindako bidaiak (% 22). Egoera hori are nabarmenagoa da 2011n, izan ere, 2010ean % 39-% 26 izan zen banaketa. Guztiarekin, pertsona gehien biltzen dituen adin-taldea 25-44 urte artekoa izan ohi da, eta oraingoan bidaien % 37an horrela gertatu da (% 35 2010ean).

Bigarren ezaugarria gizonezkoen abantaila txikia da. 2011n bidaien % 55 gizonezkoek egin dituzte eta % 45 emakumezkoek.

Lehen esan den moduan, EAEra egiten diren bidaien % 40an euskal herritarrak dira protagonista, eta gainontzeko % 60ren kasuan Estatuko bidaiariak. Estatuko bidaiarien artean Madril, Nafarroa, Katalunia eta Gaztela eta Leongoak azpimarratu behar dira. Jatorrizko autonomia-erkidegoen araberako profil soziodemografikoa gehiago zehaztea ezinezkoa da, lagina dela eta, baina bai alderatu daiteke bertakoek egiten dituzten bidaiekin.

*El análisis de los viajes recibidos a la luz del perfil sociodemográfico de las personas que los protagonizan, pone de manifiesto dos características del País Vasco como destino, que son, además, bastante estables en el tiempo. La primera de ellas es que se trata de viajes bastante segmentados por el factor edad aunque siempre predominan más los viajes realizados por mayores de 45 años (41%) que por jóvenes menores de 25 (22%). Esta circunstancia es todavía más evidente en 2011 ya que en 2010 la distribución fue de 39%-26%. Con todo, el grupo de edad más numeroso suele ser el que va de 25 a 44 años, donde en esta ocasión se concentran el 37% de los viajes (35% en 2010).*

*La segunda característica es una ligera ventaja masculina que, en 2011, se concreta en un 55% de los viajes realizados por hombres frente al 45% por mujeres.*

*Como ya se ha comentado anteriormente, el 40% de los viajes que recibe el País Vasco los protagonizan los propios residentes mientras que el 60% restante proceden de otras CC.AA. del Estado, entre las cuales destacan por su importancia las de Madrid, Navarra, Cataluña y Castilla y León. Ahondar en el perfil sociodemográfico de forma diferenciada para cada una de las CC.AA. de procedencia no es posible por condicionantes muestrales, pero sí puede hacerse de forma agrupada para su comparación con los viajes que realizan los propios residentes.*

**EAEko bezero nagusien ezaugarri soziodemografikoak. 2011. (%)**

***Características sociodemográficas de los clientes del País Vasco. 2011. (%)***

| | Guztira/ *Total* | EAEn jasotako gauak jatorriaren arabera/ *Viajes recibidos en Euskadi de residentes en* | |
|---|---|---|---|
| | | Euskadi | Beste hainbat/ *Resto CC.AA.* |
| **ADINA/*EDAD*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| 14 urte bitartean/*Hasta 14 años* | 10,2 | 11,3 | 9,5 |
| 15-24 urte bitartean/*De 15-24 años* | 11,5 | 10,1 | 12,5 |
| 25-44 urte bitartean/*De 25-44 años* | 37,3 | 32,9 | 40,2 |
| 45-54 urte bitartean/*De 45-54 años* | 17,7 | 17,0 | 18,2 |
| 55 urte eta gehiago/*55 y más años* | 23,3 | 28,7 | 19,6 |
| **SEXUA/*SEXO*** | **100,0** | **100,0** | **100,0** |
| Emakumezkoa/*Mujer* | 44,7 | 48,5 | 42,2 |
| Gizonezkoak/*Varón* | 55,3 | 51,5 | 57,8 |

**Iturria/*Fuente*:** Instituto de Estudios Turísticos. Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur). 2011.

25-44 urte arteko bidaiarien garrantzia jatorrizko autonomia-erkidegoaren arabera. 2011. (%)
*Importancia del viajero entre 25 y 44 años según CC.AA. de procedencia. 2011. (%)*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Adina kontuan hartuta, euskal herritarrek EAEra egindako bidaiak beste autonomia-erkidego batzuetakoek egindakoekin alderatzen badira, bi kasuetan antzeko garrantzia dute gazteek, baina ez da gauza bera gertatzen 54 urtetik gorako pertsonen taldean, ezta 25-44 urte arteko pertsonenean ere, eta azken horretan sartzen da gehiengoa.

Azken taldeari helduta (25-44), gehiengoa dira beste autonomia-erkidego batzuetatik etortzen diren bidaiarien artean, (% 40), eta gutxiago dira EAE barruko fluxuak badira (% 33). Azken kasu horretan, gorakada ezagutu dute 54 urtetik gorako pertsonek egindako bidaiek (% 29) eta % 20 dira Estatuko beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen bidaiarien kasuan.

Sexuaren araberako banaketari dagokionez, gizonezkoen abantaila zabaldu egiten da beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen bidaiariak kontuan hartuta (% 58).

*Si se compara la distribución de los viajes al País Vasco hechos por los propios residentes con los que proceden de otras CC.AA. según la edad, se constata que la importancia de los jóvenes es bastante similar en uno y otro caso pero no así la de los mayores de 54 años ni tampoco la del grupo entre 25-44 años, que, como se recordará, es el mayoritario.*

*Empezando por éste último (25-44), su condición mayoritaria se refuerza en los viajes que llegan desde otras CC.AA. (40%) y baja cuando se trata de flujos dentro del País Vasco (33%). En este último caso lo que aumentan son los viajes protagonizados por mayores de 54 años (29%) que sólo suponen un 20% cuando se viene del resto de Estado.*

*En cuanto a la distribución según sexo, la ventaja masculina se amplía en los viajes procedentes de otras CC.AA. (58%).*

EAE bisitatzen duten bidaiarien banaketa jatorrizko autonomia-erkidegoaren eta sexuaren arabera. 2011. (%)
*Distribución de los viajeros que visitan el País Vasco según principales CC.AA. de procedencia y sexo. 2011. (%).*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Asteburuko bidaien garrantzia eta senideen eta lagunen etxean hartutako ostatuaren garrantzia jatorrizko autonomia-erkidegoaren arabera. 2011. (%)
*Importancia de los viajes de fin de semana y del alojamiento en vivienda de familiares y amigos según CC.AA. de procedencia. 2011. (%)*

Asteburuko eta zubiak bidaiak/
*Viajes fin de semana y puentes*

Jatorrizko Autonomia Erkidegoa/*CC. de procedencia*




Senideen edo lagunen etxean ostatua/
*Alojamiento en vivienda familiar o de amigos*

Jatorrizko Autonomia Erkidegoa/*CC. de procedencia*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Kontuan hartuta EAEra egiten diren bidaia ugaritsuenak (% 46,5) asteburuetan eta zubietan egiten diren bidaiak direla, logikoa da distantzia funtsezko elementu izatea eta bidaia horien protagonista nagusiak euskal herritarrak (% 59), eta inguruko autonomia-erkidegoetan bizi direnak izatea, adibidez Gaztela eta Leonen (% 69) bizi direnak, errioxarrak (% 61) edo nafarrak (% 57).

Azken autonomia-erkidego horien kasuan, EAEra egiten diren bidaia asko eta asko familia eta lagunak bisitatzeko bidaiak dira: % 64 Gaztela eta Leondarren artean, % 50 errioxarren artean eta % 44 nafarren artean. Aipatutako autonomia-erkidego horietako bidaiarien bidaietan gehiagotan erabiltzen dira familiaren eta lagunen etxeak ostatu gisa (% 76 Gaztela eta Leondarren kasuan), batez bestekoaren gainetik (% 48) eta euskal herritarren indizearen gainetik (% 46).

*Teniendo en cuenta que los viajes de fin de semana y puente son los que más recibe el País Vasco (46,5%), es lógico que la distancia resulte un elemento clave y aumenten entre los propios residentes (59%) y entre los que residen en CC.AA. próximas como Castilla-León (69%), La Rioja (61%) o Navarra (57%).*

*Estas últimas CC.AA. están también muy asociadas a la visita a familiares y amigos como motivo para venir al País Vasco, con cuotas del 64% (castellanoleoneses), 50% (riojanos) y 44% (navarros). Son procedencias que también utilizan más la vivienda de familiares y amigos como alojamiento en el País Vasco (76% en el caso de los castellano-leoneses) con índices superiores al promedio (48%) y al que obtienen los propios residentes (46%).*

Bidaiatzeko bi arrazoi nagusien garrantzia jatorrizko autonomia-erkidegoaren arabera. 2011. (%)
*Importancia de los dos principales motivos de desplazamiento según CC.AA. de procedencia. 2011. (%)*

Familia/lagunak bisitatzea/
*Visita familiares y amigos (%)*

Jatorrizko Autonomia Erkidegoa/*CC. de procedencia*




Aisialdea/oporrak/
*Ocio, recreo, vacaciones (%)*

Jatorrizko Autonomia Erkidegoa/*CC. de procedencia*




**Iturria/*Fuente*:** Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

Euskadi igorlea-Euskadi hartzailea konparazioa Estatuaren baitan. (%). Bidaiak eta gau-kopurua eta arrazoi nagusiak. 2011. (%)
*Comparación Euskadi emisor-Euskadi destino en el marco del Estado. (%). Viajes y pernoctaciones y principales motivos. 2011*







**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

## Euskadi igorlea-Euskadi hartzailea konparazioa

## *Comparación Euskadi emisor-Euskadi destino*

Familitur-i esker, EAEren azterketa ikuspegi bikoitz batetik egin ahal izan da: merkatu igorle gisa (EAEn jatorria duten bidaiak) eta norako gisa. Bi ikuspegiak alderatuz esan daitekeenez, aurtengoan ere EAE gehiago da merkatu igorlea, izan ere, Estatuan egindako bidaien % 5eko kuota duen bitartean, % 2,6 bidaia EAEra egin dira. Alde hori are nabarmenagoa da gaualdiak kontuan hartzen badira (% 6, % 2,3ren parean).

2,18koa da egindako bidaien eta jasotako bidaien arteko ratioa eta Estatuko bigarren altuena da, Madrilen (3,08) atzetik, eta ondoren dago Katalunia (1,28).

EAE merkatu igorlea da, batez ere aisialdiko eta oporretako bidaiei erreparatzen bazaie, izan ere, EAEra egiten den mota horretako bidaia bakoitzagatik euskal herritarrek 3,5 bidaia egiten dituzte.

*Familitur ha permitido analizar el País Vasco desde la doble perspectiva de mercado emisor (viajes con origen en el País Vasco) y de destino. La comparación de ambas perspectivas ilustra un año más la condición emisora del País Vasco ya que frente al 5% de los viajes que protagoniza en el marco del Estado, recibe el 2,6%. Esta diferencia es aún mayor si se consideran las pernoctaciones (6% frente a 2,3%).*

*La ratio entre viajes realizados y viajes recibidos es de 2,18 y resulta la segunda más alta del Estado, tras Madrid (3,08), seguida por Cataluña (1,28).*

*La condición emisora del País Vasco se debe principalmente a los viajes de ocio y vacaciones ya que por cada viaje recibido por este motivo, su población ha realizado 3,5 viajes.*

Euskadi igorlea-Euskadi hartzailea konparazioa ostatu motaren eta batez besteko egonaldiaren arabera. 2011. (%)
*Comparación Euskadi emisor-Euskadi destino según tipo de alojamiento y estancia media. 2011. (%)*







**Iturria/*Fuente***: Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur) IET. 2011.

## EUSKAL HERRIKO TURISMO-MUGIMENDUEN EZAUGARRI NAGUSIAK

## *PRINCIPALES CARACTERÍSTICAS DE LOS MOVIMIENTOS TURÍSTICOS EN EL PAÍS VASCO*

### 1. Merkatu igorle gisa:

- Espainolen Turismo Mugimenduen Estatistikaren (Familitur) arabera, 2011n euskal herritarrek 8.261.488 milioi bidaia eta ia 45.197.752 milioi gaualdi egin dituzte.
- Estatuko bidaiak eta gaualdiak kontuan hartuta, EAEk % 5,1eko eta % 5,9ko kuotak lortu ditu, hurrenez hurren.
- Bidaia bolumen horri esker, EAE da Estatuan bidaia gehien egiten dituen seigarren autonomia-erkidegoa, kontuan hartzen bada urtean bidaia bat egin duten pertsonen proportzioa. Bidaien % 52an emakumezkoak dira protagonista, eta adinaren arabera, % 46k dituzte 45 urte baino gutxiago.
- Bidaia ugaritsuenak asteburuko bidaiak (% 50) dira; ondoren daude udako oporretan egiten direnak (% 16) eta aisialdia igarotzeko egiten diren bidaiak (% 9).
- Norakoak kontuan hartuta, % 9 atzerrira egindako bidaiak dira eta % 91 Estatuko autonomia-erkidego batera egindakoak. Azken horien artean Euskadi (% 18), Gaztela eta Leon (% 16), Nafarroa (% 11) eta Kantabria (% 10) azpimarratu behar dira.
- Batez besteko egonaldia 5,5 egunekoa da. Bidaien % 63 bidaia laburrak dira.
- Bidaiatzeko arrazoi nagusia da aisialdia eta oporrak igarotzea (% 60), eta familia eta lagunak bisitatzea ondoren (% 30).
- Bidaien ia % 78an automobila erabili da. Hegazkinak % 11ko erabilera-indizea lortu du.
- Gehien erabili diren ostatu motak dira: familiaren edo lagunen etxea (% 38), etxe propioa (% 23) eta hotelak edo antzekoak (% 23). Aisialdia eta oporrak igarotzeko bidaietan etxebizitza propioa da gehien erabiltzen den ostatu mota (% 35).

### *1. Desde la consideración de mercado emisor:*

- *Según la Estadística Movimientos Turísticos de los Españoles (Familitur), en 2011 la población vasca realizó 8.261.488 millones de viajes y 45.197.752 pernoctaciones.*
- *Supone una cuota sobre los viajes y pernoctaciones estatales del 5,1% y 5,9% respectivamente.*
- *Este volumen de viajes convierte al País Vasco en la sexta CC.AA. más viajera del Estado pero la segunda si se considera la proporción de residentes que han realizado algún viaje en el año (70%). En el 52% son mujeres y, por edad, el 46% tiene más de 45 años.*
- *Los viajes de fin de semana son los más numerosos (50%); les siguen los de vacaciones de verano (16%) y otros viajes de ocio (9%).*
- *Por destinos, un 9% han sido viajes al extranjero y el 91% a alguna CC.AA. del Estado, entre las que destacan Euskadi (18%), Castilla y León (16%), Navarra (11%) y Cantabria (10%).*
- *La estancia media ha sido de 5,5 días. En 63% de los casos son viajes de corta duración.*
- *El principal motivo para viajar ha sido el ocio y las vacaciones (60%) seguido por la visita a familiares y amigos (30%).*
- *En casi un 78% de los viajes se ha utilizado el automóvil. El avión obtiene un índice de uso del 11%.*
- *Los alojamientos más frecuentes utilizados han sido la vivienda familiar o de amigos (38%), la vivienda propia (23%) y los hoteles o similares (23%). En los viajes por ocio y vacaciones el alojamiento más habitual ha sido la vivienda propia (35%).*

### 2. Norako hartzaile gisa:

- 2011n Estatuan 160,7 milioi bidaia egin ziren: 13,3 milioi atzerrira eta 147,4 milioi autonomia-erkidego batera. EAEra 3.782.019 bidaia egin ziren (% 2,6).
- Bidaia hor ien % 45 asteburuko bidaiak izan ziren, eta bidaia mota hori da ugaritsuena. Garrantziaren arabera daude ondoren lanak eragindako bidaiak (% 16) eta familia eta lagunak bisitatzeko egin direnak (% 9).
- Udako oporren esparruan EAEk jaso dituen bidaiak guztizkoaren % 7 dira, baina bidaia mota hori da garrantzitsuena, sortzen dituzten gaualdiei erreparatzen bazaie (% 24). Estatuan udan erregistratutako gaualdiak guztizkoaren % 38 dira.
- EAEra egindako bidaien % 40 euskal herritarrek egin dituzte. Garrantziaren arabera daude ondoren: madrildarrak (% 15), nafarrak (% 9), katalanak (% 8) eta Gaztela eta Leondarrak (% 6).
- Bidaien % 68 bidaia laburrak dira. Batez besteko egonaldia 4 egunekoa da eta bidaien % 80 erreserbarik gabe egin dira.
- EAEra bidaiatzeko lehen arrazoia familia eta lagunak bisitatzea da (% 38), eta ondoren aisialdia eta oporrak igarotzea (% 34). Lau bidaiaren artetik hirutan beribila erabili da.
- Ostatu motari dagokionez, familiaren eta lagunen etxebizitza da gehien aipatzen dena (% 48), eta bidaien % 19an hotela erabili da.
- EAEra iritsitako bidaietan gizonezkoak dira nagusi (% 55), eta adina kontuan hartuta, 25-44 urteko taldea da ugaritsuena (% 37).

### *2. Desde la consideración de mercado receptor:*

- *De los 160,7 millones de viajes que se realizaron en 2011 en el Estado, 13,3 millones fueron viajes al extranjero mientras 147,4 millones tuvieron como destino alguna CC.AA. de los cuales el País Vasco recibió 3.782.019 viajes (2,6%).*
- *EL 45% de estos viajes fueron de fin de semana que es el tipo de viaje más numeroso. Le siguen en importancia los recurrentes de trabajo (16%) y la visita a familiares y amigos (9%).*
- *Los viajes recibidos en el marco de las vacaciones de verano representan un 7% del total pero son los más importantes por las pernoctaciones que generan (24%). En el Estado, las pernoctaciones estivales representan el 38%.*
- *El 40% de los viajes recibidos los protagoniza la propia población residente. Le siguen en orden de importancia los viajes de madrileños (15%), navarros (9%), catalanes (8%) y castellano-leoneses (6%).*
- *En el 68% de los casos son viajes cortos. La estancia media para total de viajes es de 4 días y casi en el 80% se hace sin ninguna reserva.*
- *El primer motivo para viajar al País Vasco es la visita a familiares y amigos (38%) al que sigue el ocio y las vacaciones (34%). En tres de cada cuatro viajes se viene en coche.*
- *En cuanto al alojamiento, el más frecuente es la vivienda de familiares y amigos (48%) mientras que en el 23% de los viajes se recurre a hoteles.*
- *En los viajes recibidos predominan los hombres (55%) y por estrato de edad, el grupo más numeroso es el que tiene entre 25-44 años (37%).*

# KLIK BAT EGIN ETA TURISMOARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURA IZANGO DUZU

# INFORMACIÓN DEL TURISMO AL ALCANCE DE UN CLICK



## www.euskadi.net/turismo

Euskal TURISMOAREN SEKTORERA zuzendutako WEB PROFESIONALA

- Azterlanak eta Estatistikak
- Dirulaguntzak
- Prozedura Administratiboak
- Kalitatea Sektorean
- Bekak, formazioa eta enplegua
- Seinaleztapen gidaliburua
- Turismoaren Legeria
- Argitalpenak

La WEB PROFESIONAL para el SECTOR TURÍSTICO vasco

- Estudios y Estadísticas
- Ayudas y Subvenciones
- Procedimientos Administrativos
- Calidad en el sector
- Becas, formación y empleo
- Manual de Señalización turística
- Legislación
- Publicaciones

## www.euskaditurismoa.net
## www.paisvascoturismo.net

GURE BIDAIARIENGANA zuzendutako TURISMOKO WEB gunea

- Ostatuak
- Mapak
- Garraioa
- Aisialdia
- Gastronomia
- Kultura
- Bidezidorrak
- Biltzarrak eta Azokak
- Kirolak eta natura

La WEB TURÍSTICA para NUESTROS VIAJEROS

- Alojamientos
- Mapas
- Transportes
- Ocio
- Gastronomía
- Cultura
- Rutas
- Congresos y Ferias
- Deportes y Naturaleza

EUSKADI

Lanketa / Elaboración: IKEI
Fotokonposaketa / Fotocomposición: RALI, S.A.

ISSN: 1699-342X
Lege Gordailua / Depósito Legal: SS-1167/2000

Argibide gehiago behar izanez gero:
Harremanetarako telefonoa: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo | Euskal turismoaren estatistika orikorrak
www.eustat.es
www.iet.tourspain.es | Familitur

Para más información:
Teléfono de contacto: 945 01 99 61 / Fax: 945 01 99 31
e-mail: publituris@ej-gv.es
Web: www.euskadi.net/turismo | Estadísticas generales del turismo vasco
www.eustat.es
www.iet.tourspain.es | Familitur

EUSKO JAURLARITZA · GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz